

## leZ proiektua: **BIDE ESKOLAPIOA**

---

### **Proposamenaren helburu orokorra**

Emozioetan oinarritutako leZ proiektua egitea 3-6 urte bitarteko haurrekin.

### **leZ-ren justifikazioa**

San José de Calasanz-ek bizi osoa eman zuen behar zuten guztiei lagunduz. Gure ingurukoei laguntzeko bidea erakusten digu. Bere eredia jarraituz pertsona askoren bizitza erraztuko duten bideak irekitzen ditugu; behar gehien dutenen bizitzetan bereziki. Calasanzekin batera "Itxaropen bidean" lelopean, gure bizkarrean daramagun motxilan elkartasuna, justizia, eta konpromisoa bezalako baloreak daramatzagu. Guztion artean mundu hobeago bat eraikitzen jarraitzeko erramintak izango dira balore hauek.

Gainera, zerbitzu benetan esanguratsua izan dadin, proiektua hezkuntza komunitatea hobetzera bideratu dezakegu (gurasoak, taldekideak, eskolako langileak...) . Zerbitzu hau, eskola-ingurunean egongo den eta guztion bizitza emozionala aberastuko duen ekarpena izan daiteke.

Kontuan hartu beharreko gakoa da gure bide honetan izango dugun gidaria Calasanz gazte eta motxilero bat izango dela. Aurten beste pertsonaia guztiak alde batera utziko ditugu eta protagonismo guztia gidatzen gaituen Calasanz emango diogu, bidea gurekin batera egingo duen eta bideetan itxaropena uzten duen Calasanz. Bidean zehar bere motxila proiektuz betetzen doa eta beraz, geroz eta haur eta gazte gehiago doaz berarekin, mundua kolorez, irrifarrez eta itxaropenez betez.

### **Oinarrizko Curriculumaren garapena**

#### Helburuak / Ebaluazio irizpideak:

- Gure ingurumena eta ikastetxearena hobetzea, gure ikasleei protagonismoa emanez.
- Beste errealitate batzuei beraien ingurunea hobetzen laguntzea. Proiektuak, kultura, erronkak... ezagutu eta Itaka Escolapios-en proiektuei ekonomikoki eusten lagunduz.

#### Oinarrizko kompetentziak:

3 eta 5 urte bitarteko haurrentzako emozioei buruzko proiektu honek HH-ko curriculumaren oinarrizko gaitasunak biltzen ditu, garapen pertsonal eta sozialean eta baita gaitasun emozionalean ere.

Proiektuak, HH-ko curriculum-helburuak betetzeaz gain, modu naturalean integratzen ditu jarduera esanguratsuetan. Horri esker, haurrek garapen emozional, sozial eta akademikoan funtsezkoak izango diren ezagutzak eta trebetasunak eskuratzen dituzte, eta, gainera, hezkuntza komunitateari modu positiboan laguntzen diote.

### **Garapen pertsonal eta soziala:**

- **Identitate eta autonomia pertsonala:** Haurrek emozioak identifikatzen eta adierazten ikasten dute, autokontzientzia eta autonomia garatzeko oinarrizko urratsa baita. Emozioak izendatzeak eta ezagutzeak beren buruaren irudi positiboa garatzea ahalbidetzen die eta gainera, beharrak eta nahiak ulertzen laguntzen die.

- **Emozioen eta jokabidearen autoerregulazioa:** Proiektu honek emozioak ezagutzen eta kudeatzen laguntzen die. "Lasaitasunaren txokoa" bezalako jarduerak egoera biziak kudeatzeko eta lasaitasuna modu autonomoan sustatzeko tresnak eskaintzen dituzte.
- **Pertsonen arteko harremanak eta enpatia:** Ikaskideekin lankidetzeta-jardueretan lan egitean, haurrek besteen emozioak ulertzen eta enpatikoak izaten ikasten dute. Emozioak partekatzean eta besteenak entzutean, elkarbizitzarako eta besteen sentimenduekiko errespeturako trebetasunak garatzen dituzte.

## Hizkuntza eta komunikazioa:

- **Ahozko ulermen eta adierazpena:** Ahozko ulermena eta adierazpena: Dramatizazio-jarduerak, ipuinek eta emozioen azalpenek ahozko komunikazioaren garapena sustatzen dute. Haurrek hiztegi emozionala praktikatzan dute eta hori funtsezkoa da sentimenduak modu egokian adierazteko.
- **Entzute aktiboa eta elkarriketetan parte hartzea:** Taldeko jardueretan, adibidez emozioen zirkuluan, haurrek besteei entzuten eta beren emozioak adierazten ikasten dute, hitz egiteko txanda errespetatuz. Horrek entzute aktiborako gaitasuna eta elkarriketa esanguratsuetan parte hartzea sustatzen du.
- **Ipuinak ulertzearen hasiera:** Emozioei buruzko ipuinak irakurtzeak istorio baten egitura ulertzen eta pertsonaien emozioak identifikatzen laguntzen die, etorkizuneko irakurketarako gaitasun garrantzitsuak.

## Gorputzaren garapena eta mugimenduaren kontrola

- **Gorputz-adierazpena:** "Aurpegitxoak eta keinuak" bezalako jardueretan, haurrek emozio desberdinak adierazteko gorputza erabiltzen dute, aurpegiko eta gorputzeko adierazpenen koordinazioa eta kontrola sustatuz. Horrek gorputzaren kontzientzia handiagoa garatzen eta gorputz-hizkuntza komunikazio-bide gisa erabiltzen laguntzen die.
- **Energiaren eta mugimenduaren kudeaketa testuinguruaren arabera:** "Lasaitasunaren txokoa", energia fisikoa erregulatzen eta lasaitasun uneen garrantzia ikusten ikasten dute, autokontrola garatuz.

## Ikasten ikasteko konpetentzia

- **Inguruarekiko jakin-mina:** Proiektuak ikaskuntza autonomorako funtsezkoa den jakin-mina sustatzen du. Ikasleek beraien burua zalantzan jartzean eta beraietaz ikastea, gogoeta pertsonalerako eta pentsamendu kritikorako trebetasunak garatzen dituzte.
- **Lankidetzarako gaitasuna:** Haurrek lankidetzan aritzen ikasten dute, materialak partekatuz eta besteen ideiak errespetatuz. Jarduera horiek besteekiko errespetua sustatzen dute eta lankidetzeta-ohiturak ezartzen laguntzen dute.

## Herritartasuneko konpetentzia

- **Bizikidetzeta eta besteekiko errespetua:** Norberaren eta besteen emozioak identifikatzen eta errespetatzen ikastea, haurrek ikasgelako bizikidetzeta hobetzen duten trebetasunak eskuratzen dituzte. Proiektuak enpatia, elkarrekiko errespetua eta gatazken konponbide baketsua sustatzen ditu.

- **Komunitatean parte hartuz:** Komunitateari zerbitzua emateko dinamikak, “Emozioen Eguna” edo “Emozioen Liburua” bezalako dinamikak, herriko kide izatearen eta gizarte-erantzukizunaren zentzua sustatzen dute. Honek ongizate komunaren alde lan egitearen garrantzia ulertzen laguntzen diete.

## Sormen artistikoa

- **Adierazpen artistikoa:** Emozioen murala, emozioen liburua eta dramatizazioak bezalako jardueren bidez, haurrek beren sentimenduak sormenez adierazteko aukera dute. Horrek irudimena estimulatu eta komunikazio bisual eta artistikorako bitarteko bat garatzea ahalbidetzen du.
- **Norberaren obrak baloratzea:** Sorkuntzak ikaskideei edo senideei erakustean, haurrak baloratuak sentitzen dira eta besteen sorkuntzak ere baloratzen ikasten dute, autoestimua eta norberaren eta besteen lanarekiko errespetua sustatuz.

JARDUERA 1	San Jose de Calasanz-en bizitzarako sarrera eta antzerkia		
Saio kopurua	3	<b>Arloak</b>	Errealitatearen harmonia, komunikazioa eta adierazpena haztean
<b>HELBURUAK</b>	San Jose de Calasanz-en historia ezagutu. Emozio ezberdinak ezagutzea Calasanz-en ipuinaren bidez. Eskolapioaren jatorria eta karisma ezagutzea.		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Irakasleak San Jose de Calasanz-en historiaren ipuina kontatuko die ikasleei. Calasanz-en figura bat izango dugu eta sentitzen duen emozioa aldatzen joango gara.</p> <p>Ondoren, irakasleek galderak egingo ditu, haurrek ipuina ulertu ote duten ikusteko. Galderak emozio ezberdinak aurkitzean oinarrituta egingo dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Uste duzue Calasanz pozik egongo litzatekeela hainbeste anai-arreba izateagatik? Zergatik? Eta zuek?</li> <li>● Nola sentituko ziren gurasoak Calasanzek txikitan bihurrikeriak egiten zituenean? Eta zuek?</li> <li>● Nola sentitzen zen Calasanz bere maisuak gauzak irakasten zizkionean? Eta zuek?</li> <li>● Zuen ustez, San Calasanz gustatzen al zitzaion amak ipuinak kontatzea lotara joan aurretik? Eta zuei gustatzen al zaizue?</li> <li>● Nola sentitzen zen Calasanz gauzak gaizki ateratzen zitzaizkionean? Eta zuek zer gauzak sentiarazten zaituztete gaizki?</li> <li>● Zer egiten zuen Calasanzek hobeto sentitzeko? Zer egin dezakezu zuk hobeto sentitzeko?</li> <li>● Zer egitea gustatzen zitzaion gehien Calasanz? Horregatik, apaiz egin zen. Zuri zer gustatzen zaizu egitea?</li> <li>● Zergatik jarri zen triste Calasanz Erromara iritsi zenean? Zer egin zuen hau konpontzeko?</li> </ul>		
<b>EBALUAZIOA</b>	Talde handiko elkarriketa, erregistroa eta zuzeneko behaketa erabil daitezke.		
<b>MATERIALAK</b>		<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Calasanz-en ipuina (1.eranskina).</li> <li>● San Jose de Calasanz (aurpegi-adierazpena aldatzen zaiona)</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>● Talde handia</li> </ul>	

2. JARDUERA		Erromako lehen eskola eta gure eskola gaur egun	
Saio kopurua	4	<b>Arloak</b>	Errealitatearen harmonia, komunikazioa eta adierazpena haztean
<b>HELBURUAK</b>	<p>Erroman Calasanzek eskola nola hasi zuen jakitea.</p> <p>Ikastetxeen garrantzia ezagutzea.</p> <p>Gure eguneroko emozioak identifikatzea eta kudeatzen ikastea.</p>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Talde handian gogoratzen dugu:</i></li> </ul> <p><i>"San Jose de Calasanz Erromara iritsi zenean, eskolara joan ezin ziren haur asko zeudela ikusi zuen. Bazekien ikastea oso garrantzitsua zela haur haiek hazten zirenean gauza zoragarriak egin zitzaizten. Beraz, pentsatu zuena zera izan zen: 'Eskola bat irekiko dut haur guztientzat!'"</i></p> <p><i>"San Josek leku txiki eta polit bat bilatu zuen Erroman eta han ireki zuen bere lehen eskola. Ez zuen dirurik kobratzen haur guztiek joan eta ikasteko aukera izan zezaten. Berak irakurtzen, idazten eta lagun onak izaten irakasten zien."</i></p> <p><i>"Haurrei asko gustatzen zitzaizkien beren eskola eta pixkanaka geroz eta haur gehiago iritsi ziren. Horrela, San José de Calasanz maisu handi bihurtu zen eta bere eskola izan zen Erroman guztientzako doako hezkuntza eman zuen lehena"</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Azalpenaren ondoren, galdera hauek bideratuko ditugu: "Zer uste duzue egin zuela San Jose de Calasanz hain berezia?" edo "Zergatik uste dute garrantzitsua zela denontzako eskola bat izatea?"</li> <li>• <b>Sormen-jarduera: San Jose Eskola birsortzen (zentzumen-gelan)</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hainbat tamaina eta koloretako eraikuntza-blokeekin sortu gure irudimenan sortu dugun eskola eraikiko dugu. Inspiratzen dituzten benetako eskolen irudiak ere eraman ditzakegu. Eraikuntza egiten ari garela, garrantzitsua da haurren arteko elkarrizketa sustatzea, egiten ari direnari buruz eta San José de Calasanz irakaspenak diseinuan nola islatzen diren azaltzeko. Horrek pentsamendu kritikoa eta komunikazio-trebetasunak garatuko ditu.</li> <li>○ Galdera sorta bat sortu, hurrek eraiki bitartean hitz egin dezaten. "Nolakoa izango litzateke eskola ideal bat?" edo "Zer material erabiliko zenituzke ikasteko leku bat eraikitzeko?" bezalako galderak ikasleek sormena eta arazoak konpontzea sustatuko dute. Gainera, oinarriko matematikako kontzeptuak integratu ditzakegu, horma bat egiteko zenbat bloke beharko litzuketen edo zenbat leiho izan beharko litzuketen galdetuz.</li> </ul> </li> </ul>		

	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hurrek eraikuntzak amaitu ondoren, saio bat erabiliko dugu talde bakoitzak bere eskola aurkezteko. Azaldu beharko lukete zer eraiki duten, zergatik hartu dituzten erabakiak eta nola islatzen dituzten beren diseinuek San José de Calasanz-en balioak. Horrek komunikazio gaitasuna estimulatzeaz gain, aukera ematen die hurrei beren lanaz harro sentitzeko eta ikuspegi desberdinak partekatzeko eta entzuteko prozesua baloratzen ikasteko.</li> <li>● <b>Zerbitzu-jarduera: "Esker onaren kartela"</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Egin kartel bat haur guztiek marraztu edo marka txiki bat egiteko, San José de Calasanz eskeintzeko.</li> <li>○ Kartel hau ikasgelan edo ikastetxean ikusgai jarri, denek ikus dezaten zein esker onekoak garen ikasteko.</li> </ul> </li> <li>● <b>Pentsamendu-errutina konparatu eta kontrastatu</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Bi irudi konparatu eta kontrastatuko ditugu, bata Erromako lehen eskolakoa eta bestea gure ikastetxekoa.</li> <li>○ Zer aldatu da? Nola uste dugu sentitzen direla lehenago marrazkiko haurrak? Nola sentitzen gara orain eskolan?</li> </ul> </li> </ul>
<b>EBALUAZIOA</b>	Talde handia eta zuzeneko behaketa.
<b>MATERIALAK</b>	
Esker oneko kartela ikastetxean erakusteko Konparatu eta kontrastatu fitxa (2. eranskina).	<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b> Talde handia

3. JARDUERA.		Eskolak Afrikan	
Saio kopurua	2/3	<b>Arloak</b>	Ingurunearen ezagutza  Hizkuntzak: Komunikazioa eta adierazpena
<b>HELBURUAK</b>	Trebetasun artistikoak garatzea maskarek Afrikako hainbat komunitatetan duten garrantzi kulturalari buruz ikasten duten bitartean, artearen inguruan ikasi eta emozioak identifikatzea sustatzea da helburua.		
<b>DESKRIBAPENA</b>	Afrikako maskarak margotuko dira: Hurrei maskara afrikarren txantiloiak banatuko dizkiegu (emozio desberdinekin, ikusi 3. ERANSKINAREN adibidea) eta margotu aurretik, talde handian aurpegiak mota ezberdinak eta hauen emozioak aipatuko dituzte: tristura, zoriontasuna, harridura, aspertzea... Ondoren, margotu eta kartoian itsatsiko dira, moztu eta haiekin jolastu dezakegu rol-playing bat eginez.		
<b>EBALUAZIOA</b>	Baloratuko da: albisteen aurkezpena, egindako bilduma eta azken saioaren txostena		
MATERIALAK		TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK	
Fotokopiak eta maskaretako materiala (III. ERANSKINA)		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde handia</li> <li>- Talde kooperatiboak</li> <li>- HHkotribu guztiak nahastuz (3, 4, 5 eta 6 urtekoak)</li> </ul>	

4. JARDUERA.		Eskolak Latinoamerikan	
Saio kopurua	1 -2	<b>Arloak</b>	Ingurunearen ezagutza
<b>HELBURUAK</b>	Latinoamerikako erritmo eta dantza tradizionalen bidez emozioak esploratzea eta adieraztea, kultura-aniztasunarekin eta gorputz-mugimenduaren gozamenarekin lotura sustatuz.		
<b>JARDUEREN DESKRIBAPENA ETA HELBURUAK</b>	<p>Latinoamerikako musika mota ezberdinen zatiak erreproduzitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ <b>Samba</b> (Brasil): alai eta energetikoa.</li> <li>■ <b>Cumbia</b> (Colombia): Dibertigarri eta arina.</li> <li>■ <b>Tango</b> (Argentina): Elegante eta malenkoniatsua.</li> <li>■ <b>Cueca</b> (Chile): Bizia eta dinamikoa.</li> </ul> <p>Haurrak begiak ixtera gonbidatuko ditugu eta galdera hauek egingo ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ "Nola sentitzen zara musika honekin?"</li> <li>■ "Mugitzeko edo geldirik egoteko gogoia ematen dizue?"</li> </ul>		

Lotu erritmo bakoitza emozio batekin, eta azaldu ikasleei mugitu egingo garela eta emozio horiek gorputzarekin adieraziko ditugula.

- Samba: alaitasuna eta energia.
- Cumbia: Dibertsioa eta motibazioa.
- Tangoa: Lasaitasuna edo malenkonia.
- Cueca: Harrotasuna edo motibazioa.

### 1. Jolasa: "Emozioa mugimenduan":

- Haur bakoitzak emozio bat aukeratuko du (alaitasuna, lasaitasuna, harridura, tristura).
- Aukeratutako erritmoari dagokion musika jarriko diogu eta hurrek dantza egingo dute emozio hori adieraziz. Adibidez:
  - Samba pozerako: Saltoak, bira azkarrak, irribarreak.
  - Lasaitasunerako edo tristurarako tangoa: Mugimendu biziak, beso irekiak...
  - Dibertsiorako cumbia: Aldaka-mugimendu leunak eta pauso handiak.

### 2. Mugimenduak aztertuz:

- Dantza bakoitzaren oinarrizko mugimenduak aurkeztuko ditugu:
- Haurrak sorkuntzarik mugitzera animatuko ditugu, nola sentitzen diren adierazten duten bitartean.

### 3. Taldeko dantza:

- Guztiak borobil batean elkartu eta haur bakoitzak keinu edo mugimendu bat egingo du. Bakoitzak bere mugimendua aurkeztu ondoren talde osoak imitatuko du.

---

### 3. Hausnarketa eta itxiera

#### - Emozioen gurpila:

- Eseri borobilean eta galdetu:
  - *"Zein da dantzan ibili garenean gehien sentitu duzuen emozioa?"*
  - *"Zein da gehien gustatu zaizuen musika eta zergatik?"*

#### ● Sormenezko marrazketa:

- Dantzatzen zuten bitartean sentitu dutena marraztera gonbidatuko ditugu haurrak.

	<b>Familiantzako aukerako jarduera (leZ)</b>	
	Emozioen dantza-jaialdi <b>txiki bat antolatu daiteke</b> familiekin, non hurrek ikasitako oinarrizko pausoak erakutsiko dituzten, eta mural kolektibo bat sortu, non familiek eta hurrek dantzaren emozioak margotzen dituzten.	
<b>EBALUAZIOA</b>	Zuzeneko behaketaren bidez.	
	<b>MATERIALAK</b>	<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b>
	Kanpainaren webgunean lantzen diren proiektu-fitxak.	Talde txikietan eta banaka.

<b>5. JARDUERA.</b>	<b>Eskolak Europan</b>		
Saio kopurua	1	<b>Arloak</b>	Ekonomia, geografia eta historia...
<b>HELBURUAK</b>	Aurkezpenerako ikasitakoa laburbiltzea		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Europako hainbat herrialdetako eskolen irudian aurkeztuko ditugu (Finlandiako klase bat, Frantziako eskola-patio bat, Liburutegi bat Ingalaterran). Europa osoan gure ikasleak bezalako eskoletara joaten diren ikasle asko daudela azalduko dugu.</p> <p>Hausnarketarako galdera: <i>"Nola sentitzen dira haurrak eskolan? Zer emozio sentitzen ditug ikasten, jolasten edo lagunak egiten ditugunean?"</i></p> <p>Eskolarekin lotutako ipuin bat aukeratu du. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>"Matilda"</i> (Inglatera): Eskolan erronka emozionalak dituen neskato oso adimentsu bati buruz hitz egiten du, baina ikastea ere gustuko du.</li> <li>• <i>"Heidi"</i> (Suitza): Eskolaz zuzenean hitz egiten ez badu ere, Heidik bere ingurunean nola ikasten duen erakusten du, jakin-min, poz eta tristura bezalako emozioekin. Ipuinaren ondoren, galdetu: <i>"Zein emozio sentitu zuten pertsonaiek ikasten ari ziren bitartean?"</i> <i>"Nola lagun dezakegu eskolan denak zoriontsu eta lasai senti daitezen?"</i></li> </ul>		
<b>EBALUAZIOA</b>	Pentsamendu garatuaren trebetasuna ebaluatzea.		
	<b>MATERIALAK</b>	<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b>	
	"Matilda" edo "Heidi" ipuinak	Lan pertsonala.	

6. JARDUERA.		Azken jarduera mapa mundi	
Saio kopurua	1	Arloak	Ingurunearen ezagutza
<b>HELBURUAK</b>	<p>Presentzia eskolapioa dagoela ikasi ditugun kokapen berrien inguruko hausnarketa</p> <p>Emozioei buruz hitz egitea</p> <p>Besteei leZ-n ikasitakoa erakustea</p>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Talde handian egun hauetan ikasi dugunaz hitz egingo dugu. Calasanz-i esker eskolara joaten diren hurrek sentitzen dituzten emozioetan zentratuko gara eta bera nola sentituko litzatekeen.</p> <p>Afrika, Latinoamerika eta Europako lurraldeak azaltzen diren fitxa egingo dugu, presentzia eskolapioak kokatzen joateko.</p> <p>Mundu mapa koloreztatu eta Calasanz-en aurpegitxo zoriontsuak moztuko ditugu, ondoren dagokion lekuan itsatsiz.</p> <p>Ondoren, beste saio batean ikastetxeko sarreran jartzeko mural bat egingo dugu munduko maparekin. Calasanz-en aurpegitxo zoriontsua jarriko dugu lan egin dugun kontinenteetan, baina baita presentzia eskolapioa egon eta landu ez ditugun kontinenteetan ere. Horrela, beste ikastaro batzuetako gure ikaskideak, ikastetxera sartzan direnean. Calasanz-i esker ia mundu osoan eskola-presentzia aurkitzen dugula ikusi ahal izango dute.</p>		
<b>EBALUAZIOA</b>	Egin beharreko azken produktua ebaluatuko da.		
<b>MATERIALAK</b>		<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b>	
<p>Munduko maparen fitxa (4.eranskina)</p> <p>Guraizeak</p> <p>Kolak</p> <p>Muraletako paper zuria</p> <p>margoak</p>		<p>Lana talde handian</p> <p>Banakako lana mahai gainean</p>	

JARDUERA 7.		Emozioen festa	
Saio kopurua	2	<b>Arloak</b>	Ingurunearen ezagutza Komunikazio-gaitasuna
<b>HELBURUAK</b>	<p>Emozioak ezagutu eta identifikatzen jakitea</p> <p>Emozio bakoitza nola kudeatu jakitea</p> <p>Besteei ikasitakoa azaltzea</p> <p>Familiek eta hurrek lotura emozionalak indartu eta elkarrekin ikaskuntza sortzea.</p> <p>Familiek etxean emozioez hitz egiteko tresnak lortzea.</p> <p>Eskola-komunitate enpatikoagoa eta emozionalki konektatuagoa sustatzea.</p>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>"Emozioen trivial"-ean jolastuko dugu, emozioei buruz ikasi dugun guztia errepasatu eta hauek nola identifikatu eta kudeatu aipatzen dugun bitartean.</p> <p>Familiei gonbita egingo diegu, egun batean gurekin emozioen eguna ospatzera etor daitezten. Festan hainbat ekintza egingo ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Iristean, haurrak emozioen kolore eta sinboloekin apaindutako mahai batean jasoko dute dituzte beraien familiak. Bertan Emozioen txapa bat egiteko aukera egongo da. Horrek elkarrizketa bat hasteko balioko du: <i>"Gaur horrela sentitzen naiz..."</i></li> <li>- Proiektuan zehar diseinatu ditugun muralak eta lanak erakutsiko ditugu eta zer ikasi dugun azalduko diegu.</li> <li>- Emozio ezberdinak sentitzen ditugun eguneroko egoerei buruzko antzezlan txikiak egingo ditugu.</li> <li>- Tailerra familian: "emozioen kubo". Familia bakoitzak emozioen kubo bat sortuko du, kartulina, pegatinak eta errotuladoreak erabiliz. Kuboaren aurpegi bakoitzak emozio bat irudikatzen du (alaitasuna, tristura, beldurra, harridura, haserrea eta lasaitasuna). Denek batera apainduko dute eta ondoren dadoarekin jolastuko dugu: kuboaren botaz agertzen den emozioaz hitz egiteko eta berarekin lotutako esperientziak partekatzeko aukera izango dute.</li> <li>- Emozioen trivialean jolastuko dugu talde txikietan gurasoekin batera.</li> </ul>		
<b>EBALUAZIOA</b>	Zuzenean proiektuan zehar ikasitakoa ebaluatuko da.		
<b>MATERIALAK</b>		<b>TALDEKATZEA</b>	
Emozioen triviala (taldeen kopiak egin behar ditugu) V. ERANSKINA Emozioen pina ( VI ERANSKINA)		Talde txikietan egindako lan kooperatiboa.	